

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

2006/07 DENBORALDIA

30. ZIRKULARRA

ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGARA IGOTZEKO FASEA

Euskal Ligako kategorian egon daitezkeen leku libreak betetzeko helburuarekin, Areto Futboleko Euskal Batzorde honek, denboraldi honetarako Lehiaketan Planean ezarritakoaren arabera, aipatutako Igoera Fasea antolatu du, ondorengo arauetara jarraiki

1. PARTE HARTZEN DUTEN KLUBAK

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako maila goreneko kategorietan bigarren sailkatu direnak.

2. LEHIAKETA SISTEMA

Buelta bakarreko Liga sistema erabiliko da.

Partidu guztiak baloi ofizialarekin jokatu behar dira nahitaez, "PUMA" markakoa dena.

Partidua hastean etxeko taldeak gutxienez 5 baloi izan beharko ditu: 2, arbitroarentzat, eta beste 2, kanpoko taldearentzat.


Xedapen hau betetzen ez duen taldea zigortuko du Lehiaketako Epaile Bakarrak.

Taldeak, gutxienez, partidua hasi baino ordu erdi lehenago aurkeztu behar dira zelaira, eta denbora tarte berean lizentziak aurkeztu beharko dizkiote epaileari eta kronometratzaileari.

Partidua hasi baino hamabost minutu lehenago jokalekuan ezin izango da egon bestelako jarduerarik, kanpoko taldeak beroketa-ariketak egin ditzan.

Partidu bat hasi ahal izateko, talde bakoitzak, gutxienez, jokatzeko moduan dauden sei jokalariez gain, taldearen ordezkari bat ere aurkeztu beharko ditu. Halaber, etxeko taldeek behar bezala identifikatutako eta arbitroaren esanetara dagoen zelaiko ordezkari bat aurkeztu beharko du nahitaez.

.../....



- 2 -

Betebehar hori ez bada betetzen dagokion jurisdikzio-organoak ez agertutzat hartuko du.

Partiduek 20 minutuko bi zati izango dituzte, kronometratuko dira, eta 10 minutuko atsedena izango dute.

3. DATAK

Partiduak **maiatzaren 27 eta ekainaren 3 eta 10.**

4. JARDUNALDIAK ETA PARTIDEN ORDUTEGIAK

Partiden data, ordua eta jokalekua partidua jokatu aurreko asteko ostiraleko 19:00ak baino lehen jakin beharko ditu Federazio honek. Halaber, partidua jokatu aurreko asteazkeneko 22:00ak baino lehen jakinaraziko zaio kanpoko taldeari. Partidak hasteko ordutegiak, tarte hauetan egon beharko dira:

Larunbatetan: 15:45 – 20:00

Igandeetan: 11:00 – 13:00 eta 16:00 – 18:00

Klub guztiek ezarritako partiden ordutegi ofizialak aldatzeko eskumena dute, betiere kanpoko taldea ados badago, eta Areta Futboleko Euskal Batzordeko Idazkaritzari idatziz jakinarazten badiote partidua jokatu aurreko asteko ostiraleko 19:30ak baino lehen. Aldaketaren dokumentuan bi klubak zizuzen eta sinadura agertu beharko da.

Aldaketa horrek arbitroengan eragina duenez, zelaiko jabeak diren klubek beste **12 € arbitro bakoitzeko** ordaindu beharko dituzte arbitroen ordainagirian.


Jakinarazpena idatziz egiten ez bada, edo epea kanpo egiten bada, eskatutako ordutegi aldaketari ez zaio baimenik emango.

5. BERDINKETAK

Egon daitezkeen berdinketak EFFren Arautegi Orokorren arabera ebatziko dira, edo egunen dauden Jokatzeko Arauak.

Partidu bakoitza bukatzean, emaitza edozein dela ere, penaltiak jaurtiko dira, 5 derrigorrez, eta berdinketak jarraitzen badu irabazlea egon arte jaurtitzeko jarraituko dira. Emaitza hau kontuan hartuko da sailkapen orokorrean egon daitezkeen berdinketa apurtzeko azken aukera gisa.

..../....



- 3 -

6. ARBITROAK

Izendatutako arbitroak Lurralde kategoriakoak izan dira, eta zelaiko jabea den taldeak dagokion ordainagiria ordainduko du, zenbatekoa ohizko ligakoa izanik. Arbitroa eta Mahaiko Epailea.

7. DIZIPLINAZKO BATZORDEA

Partidua bukatzean, arbitroaren akta Euskal Batzordeari bidaliko zaio, posta urgentearen bidez edo faxez, Epaile Bakarrak bere epaia eman dezan, hala suertatzekotan. Akta astearteko 18:30ak baino lehen izan beharko du CVFSk.

Hala jakinarazten zaie lehiatzen duten klubei, Arabako Futbol Federazioari, Bizkaiko Futbol Federakundeari, Gipuzkoako Areta Futboleko Federaziori, eta Areta Futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoari, jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako.

2008ko maiatzak 15 Bilbon

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA


IDAZKARI NAGUSIA